

GIZARTE-EKONOMIAREN AUKERA ZAITZEN

KRISIAREN AURREAN: GIPIZKOAKO PERTSONA NAGUSIEN

ALORRA AZTERGAI

Tesiaren egilea: Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ekonomia Aplikatua I

Tesi-zuzendaria: Baleren Bakaikoa Azurmendi eta Mikel Zurbano Irizar

Tesiaren laburpena:

Azken urteotan elkarloturik gertatzen ari diren zenbait gizarte-fenomenoren ondorioz, mendekotasunen bat pairatzen duten pertsonen zaintza-ereduan zenbait hutsune eta tentsiogune azaleratzen ari dira. Zaharkitze demografikoak batetik, familia-ereduetan emandako aldaketek bestetik, eta ongizate-estatuan egiten ari diren murrizketa progresiboek azkenik, gero eta hazkorragoa den zaintza-eskari bati gizarte-mailako erantzunak emateko zailtasunak areagotu dituzte.

«Zaintzaren krisia» deitu izan zaion hau aztertzeak premiazko bilakatzen du analisia alor ezberdinak kontuan hartuz egitea, besteak beste, esparru informala- laren eta baita gizarte-zerbitzu publikoko sistemaren azterketak ere ezinbestekoak direlarik. Faktore horiek aztertzeaz batera, lan honetan bereziki erreparatu nahi izan zaio gizarte-ekonomiak inguruabar honetan jokatzeko duen eta joka lezakeen paperari.

Horretarako, lehenik eta behin, gizarte-ekonomia eta ongizate-estatuaren arteko harreman-ereduen analisia burutu da, nazioarteko errealitateen alde- raketa erabili delarik marko teorikoa zedarrizteko. Ongizate-erregimen ezber- dinetan gizarte-ekonomiak agertzen duen pisua aztertu ostean, gizarte-ekonomia kontzeptu bezala nola garatu den aztertu da, bere inguruko beste zenbait noziore- kin dituen antzekotasun eta ezberdintasunak aztertuz, besteak beste, hirugarren sektorearekin, mozkinen beste erakundeekin, enpresa sozialekin eta ekonomia solidarioarekin alderatu delarik.

Bigarrenik, landa-lanari dagokionez, gizarte-ekonomiak Gipuzkoako adineko pertsonen bideraturiko zerbitzuetan duen parte-hartzea sakonki aztertu da, metodologia kuantitatibo eta kualitatibo ezberdinak baliatuz. Análisi kuantitatiboan bi gerturapen nagusi egin dira: alde batetik, Euskadi mailan eta Gipuzkoan berezi- ki, kudeatzen diren gizarte-zerbitzuen artean zenbat diren erakunde publikoek emanak, zenbat enpresa pribatu kapitalistek eta zenbat gizarte-ekonomiako enpre- sen bidez kudeatuak aztertu da. Beste aldetik, Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gizarte ekonomiako enpresen mapa bat osatu da, eta enpresa horietako bakoitzari galdetegi bat igorri zaio, tesian jorratu diren gaien inguruko informazioa jasoz.

Analisi kualitatiborako adituen panel bat osatu da, gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten herri-erakundeetako ordezkariak, gizarte-ekonomiako enpresetako arduradunek eta beste zenbait gizarte-eragilek osatu dutena, eta sakoneko elkarrizketen metodoa baliatuz tesian jorraturiko puntu nagusien kontrastea gauzatu da.

Lanaren ondorio nagusien artean, lanaren abiapuntuko bi hipotesiak neurri bateraino egiantzekoak direla frogatu da: batetik, lehen hipotesiari erantzunez, gizarte ekonomia oraindik orain gizarte-zerbitzuen esparruan onarpen-maila ahuleko adiera dela ikusi dugu, nahiz eta trantsizio betean den sektorea izateak aukerak sortzen dituen, gure iritzian, etorkizunean artikulazio sendoagoko esparru bilakatzeko; bestetik, bigarren hipotesia auzitan jarritz, gizarte-ekonomia herri-erakundeen arrimuan eta ez haiekiko lehian garatzen joan dela ikusi dugu, eta horrek eskaintzen duela bermerik sendoena egun egituratzen ari den gizarte-zerbitzuen sistema mistoan herri-erakundeen aliatu natural izateko.